

# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

### 171

*EBAZPENA, 2019ko abenduaren 19koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita 2018ko ekitaldian eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien elkarteei eta horien batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren esparruan emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda.*

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteei eta horien batasun edo federazioei buruzko urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpena elkarrekin merkaturatzen duten nekazarien elkarteak eta horien batasunak aitortzeko oinarrizko arauak eta betekizunak ezartzea.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko urriaren 2ko Aginduaren bidez, nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteentzako eta horien batasun edo federazioentzako 2018ko ekitaldirako laguntzen deialdia egin zen. Laguntza horiek 2015-2020ko Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota daude.

Otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoarekin bat (dekretu horretan, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen da), eta 2018ko urriaren 2ko Agindu horren zazpigarren ebazpenean xedatutakoari jarraikiz, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak aurkeztu ziren eskaerak ebatzi zituen, eskaera eta dokumentu horiek aztertu eta gero, eta balorazio-batzordeak egin duen proposamena ikusirik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikulua bigarren paragrafoaren 2. apartatua xedatutakoa betez, eta ebazpenak banan-banan jakinarazi behar badira ere, haren babesean emandako laguntzak eta onuradunak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Argitaratzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin, urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretuaren babesean 2018ko ekitaldian emandako laguntzen onuradunen zerrenda. Dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteei eta horien batasun edo federazioei buruzkoa da (aipatutako zerrenda ebazpen honen eranskinean dago).

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 19a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,  
JORGE GARBISU BUESA.

2020ko urtarrilaren 16a, osteguna

## ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARIEN ETA BASO-EKOIZLEEN ELKARTEEI ETA  
 HORIEN BATASUN EDO FEDERAZIOEI BURUZKO URTARRILAREN 30EKO 10/2018  
 DEKRETUAREN ESPARRUAN 2018KO EKITALDIAN EMANDAKO DIRULAGUNTZEN  
 ONURADUNEN ZERRENDA

Zk.	IFK	Izena edo Izen soziala	Noiz aurkeztu zen	EAEren Aurrekontuen konturako laguntza	LGENF funtsen konturako laguntza	Laguntza, guztira
APA-18-01	B20849543	Basatxeri 2004, S.L.	2018/11/15	20.000,00	80.000,00	100.000,00
APA-18-02	F75057042	Latxa Esnea, S. Coop.	2018/11/15	10.518,49	42.073,96	52.592,45
APA-18-03	F01035278	Garlan, S. Coop.	2018/11/9	10.825,15	43.300,58	54.125,73
APA-18-04	F75194654	Uneko, Koop. Elk.	2018/11/15	20.000,00	80.000,00	100.000,00
APA-18-05	F95854204	Beigorri, Ko	2018/11/14	20.000,00	80.000,00	100.000,00